

# Asisko gutuna

2015ko maiatza. 3. printzipioa. Eguneroko bizimodua: kanporantz, elkartasuna

79. zenbakia

Asis Sarea eguneroko bizimoduan espiritualtasun frantziskotarra ezagutu edo partekatu nahi duten lagunen sare sozial irekia da.

Greziarrek denbora bi erataraz adierazten zuten: Kronos eta Kairos. Kronos zen neurtu daitekeen denbora, nahiz orduka nahiz egun edo urteetan. Aldiz Kairos, garai edo aldi berezia da, zerbait garrantzitsua gertatzen den aldia; hau da, denbora sakonean. Guri bizi dugun aldi hau, Kairos gerta dakigula, Jainkoarekin aurkituko garen aldi berezia.

## Gogoetarako gaia

### *Aisialdia*

Aisialdia, astia, ez da betitik izan gizakien bizitzaren parte. Garaiotako lorpena da. Orain dakigu, gizabanakook beharrezko dugula aisia, atsegina edo gustu dugunerako erabil dezakegun geure bizitzako eremu hori. Bizitzaren espazio horretan erlojuak egin dezake planto edo bizkorrago ibili, kudeatzen dugun moduaren arabera. Izan ere hainbeste erabiltzen dugu aisialdia egunerokoetatik kanpoko zereginetan, non horrela desagertuta gelditzen den “aisialdia” deitzen dugun hori.

Mila erabilera eman diezaiokegu aisialdiari. Balio dezake dibertitzeko edo, besterik gabe, asperrean denbora pasatzeko. Edo bestela erabil dezakegu, geure bizitza bete dezan sormen-lan batean; adibidez, heziketarako edo norbere buruarekin aurkitzeko ekimenetarako; edota besteekiko harremanak berreskuratzeko, agian eguneroko zereginetan gehiegi lanpetuta utzi genituen haiek.

Hala ere, badaude gure existentziari beste dimentsio bat eman diezaioketen jarduerak. Denbora hori eman dezakegu besteen alde zerbait egiten, geure baitatik atera eta besteei bizitza hobea eskuratzeko balio dezakeen zerbaitetan lankide izaten.

Badakigu munduak kanpotik mila ekintza eskaintzen eta antolatzen dizkigula, aisialdia enplegatzeko; baina galdetzen diogu inoiz geure buruari zer eskatzen digun bihotzak? Zeren premian da geure barrua, bizitzako une hori premia horri erantzuten erabiltzeko?

Segur aski, aisialdi horri zentzua emateko modurik onena izan daiteke geure bizitza Jainkoari eta senideari ematea, senide horrek norbait behar duenean berari entzuteko, edo konpainia egiteko begirada geldi lasaiaz, bakea eta sosegua emateko gai dadin besarkadaz, zereginetz eta presaz betetako mundu honetan.

## Bibliako pasarteak: Koh 3,1-8

Denak du bere sasoia, gauza bakoitzak bere garaia du eguzkipean: jaiotzeko garaia eta hiltzeko garaia, landatzeko garaia eta landarea ateratzeko garaia, hilarazteko garaia eta sendatzeko garaia, hondatzeko garaia eta eraikitzeko garaia, negar egiteko garaia eta barre egiteko garaia, aiene egiteko garaia eta alai egoteko garaia, harriak jaurtitzeko garaia eta harriak biltzeko garaia, besarkatzeko garaia eta banantzeko garaia, bilatzeko garaia eta galtzeko garaia, gordetzeko garaia eta botatzeko garaia, urratzeko garaia eta josteko garaia, isiltzeko garaia eta mintzatzeko garaia, maitatzeko garaia eta gorrotatzeko garaia, gudurako garaia eta bakerako garaia.

## Frantziskotar espiritualtasuna

«Anai guztiak saia bitez ekintza onetan ahalegin guztiarekin, idatzia baitago: “Jardun ezazu beti zerbait onean, deabruak lanpetua aurki zaitzan”. Eta baita ere: “Alferkeria arimaren etsai da”. Horregatik, Jainkoaren zerbitzariak otoitzari edo ekintza onen bati emanak egon behar dute beti».

*Anaia eguzkiaren kantika* idatzi duen batek denbora asko pasatu behar izan du natura kontenplazten, hartaz pozten, anaia haizearen fereka dastatzen, anaia suaren beroaz gozatzen, arrebak ilargiak argitua izaten uzten. Kreazioko izaki guztiei anaia/arrebak deitu dienak une asko eman behar izan ditu anaia/arrebei harrera egiten, haien ondoan bidean, haien pozak entzuten eta saminak arintzen. Ordu asko bakarrik bere Jainkoaren edertasuna kontenplazten eta kantatzen eman dituenak -Frantziskok- ulertua du, noski, bere astialdia indar guztiez maite duen Harekin egoteko nahi duela. “Arimaren etsai den alferkeria” zera da: hutsean galdutako bizitza, harridurarik eta harremanik gabea, sorkarien ederrez, senideen ontasunez eta Jainkoaren hurbiltasunez arima bete ez duena.

## Otoitza

Zugan hartu atsedean,  
itzalean,  
erreka ondoan,  
haize leuna hartuz  
eta burua zure sorbaldan.

Zugan hartu atsedean,  
beldurrik gabe,  
nostalgia-rik gabe,  
faltsurik gabe,  
irrikarik gabe, maitemindua.

Zugan hartu atsedean,  
unea gozatuz,  
fardel eta zamatik aske,  
ezertarako presarik gabe  
eta itxaropenak amesten.

Zugan hartu atsedean,  
lasai-lasai,

orain eta aldi-oro,  
Zuk eman poz eta graziara  
ohitu nadin arte.

Zugan hartu atsedean  
arrakasta edo  
porrotaren ondoren,  
eta doan partekatu  
zure emozio intimoenak.

Zugan hartu atsedean  
eta Zu eskertu,  
hitzez eta hitzik gabe,  
jende xume eta xehearengan  
duzun presentzia solidarioagatik.

Zugan hartu atsedean!

Florentino Ulibarri

## Gutuneko azken hitzak

“Bide luzerako pauso laburra.” (Jean Racine)

2015ko maiatzeko eguneroko Ebanjelioa

Egunero Ebanjelioa irakurri nahi duten lagunek, egun bakoitzari dagozkion irakurgaiak arabera, hemen daukate maiatzeko erreferentzia guztiak:

1 Jn 14, 1-6	8 Jn 15, 12-17	15 Jn 16, 20-23a	22 Jn 21, 15-19	29 Mk 11, 11-26
2 Jn 14,7-14	9 Jn 15, 18-21	16 Jn 16, 23b-28	23 Jn 21,20-25	30 Mk 11, 27-33
3 Jn 15,1-8	10 Jn 15, 9-17	17 Mk 16, 15-20	24 Jn 15,26-27;16,12-15	31 Mt 28, 16-20
4 Jn 14, 21-26	11 Jn 15, 26-16, 4a	18 Jn 16, 29-33	25 Mk 10, 17-27	
5 Jn 14, 27-31a	12 Jn 16, 5-11	19 Jn 17, 1-11a	26 Mk 10, 28-31	
6 Jn 16, 1-8	13 Jn 16,12-15	20 Jn 17,11b-19	27 Mk 10, 32-45	
7 Jn 15, 9-11	14 Jn 15, 9-17	21 Jn 17, 20-26	28 Lk 22,14-20	

Geure web gunea bisitatu

[www.asissarea.org](http://www.asissarea.org)




Asis Sarea

646 21 48 96

Maiatzeko otoitza 28an izango da